

ULLÍBARRI-ARRAZUA

– ARABA / ÁLAVA –

Arabako hiriburutik 9,5 km-ra dago Uribarri Arratzua, ipar-ekialderantz. Gasteiztik abiatuta hara heltzeko, Betoñurantz joan behar dugu, eta Gamarra-ko industria-poligonoa zeharkatu ondoren, A-3008 errepidea hartu.

Doypa herria izan zuen ondoan garai batean. Gaur egun *Doypa* desagertuta dago, baina orduan Uribarri Arratzua baino handiagoa zen. *Huribarrik* golde-burdina bat ordaintzen zaien Donemiliaga Kukulako monasterioari, eta *Doypak* bi golde-burdina. 1295eko artxidiakono-barrutiaren bileran, *Ullíbarri Doypa* izenez aipatuta ageri da, eta hiru onuradunek ordezkatu zuten orduan.

La localidad de Ullíbarri-Arrazua se encuentra situada, a una distancia de 9,5 km de la capital alavesa en dirección noreste. Saliendo hacia Betoño, y una vez atravesado el polígono industrial de Gamarra, se continúa el viaje por la carretera A-3008.

Este núcleo poblacional estuvo muy próximo al pueblo desaparecido de *Doypa*, con la peculiaridad de que *Doypa* fue mayor que Ullíbarri-Arrazua. Mientras *Huribarrik* pagaba al monasterio de San Millán de la Cogolla una reja, *Doypa* contribuía con dos. En la reunión del Arcedianato, en 1295, figura con el nombre de *Ullíbarri Doypa*, y estuvo representado por tres beneficiados.

San Esteban eliza / Iglesia de San Esteban

SAN ESTEBAN ELIZA eremu lauan dago eraikita, eta herria eratzen duten etxeak ditu inguruan. Eraikinen artean kanpai-dorrea nabarmentzen da, inguruko etxeak baino altuago. Beranduko barrokokoa da, XVIII. mendearen bigarren erdialdekoa. Eraikinaren horma gehienak harlan-

LA IGLESIA DE SAN ESTEBAN se halla en un terreno llano, rodeada de las casas que configuran el pueblo. Destaca en altura la torre-campanario, un buen ejemplar del barroco tardío, de la segunda mitad del siglo XVIII. La fábrica está realizada, en su mayor parte, en mampostería –sobre

Herriaren ikuspegi orokorra / Vista general del pueblo



gaitzezkoak dira –zokalo modukoa eratzen duten aurreko ilarak dira kalitate hobekoak–, eta ertzetan silarririk eta kontrahormak dituzte. Oinplanoa gurutze latindarrekoa da, bi zatikoa; besoak oso laburrak ditu, eta erdi-puntuko arku sakonen arkubarnerak ematen dute gehiago, eta motibo geometrikoz daude apainduta. Burualdea poligonal da, hiru aurpegikoa, eta ertz-ganga batez dago estalita. Gurutzadura-ganga izartu batek estaltzen du.

Nabearen azken zatiek parpain-arku zorrotzak eta kanoi-ganga gorde dituzte. Erdi Aroan eraikitako beranduko erromanikoko egitura da, eta gerora maisutua, neoklasikoan, XVIII. mendearen amaieran. Hegoaldeko horman, ohikoa denez, eliza-ataria dago. Zutabe toskanarren gainean ezarrita dauden hiru arku beheratu ditu, eta XIII. mendeko portada erromanikoa babesten du azpian. Portada hori inertziatzko erromanikoaren ale bikaina da. Hormatik nabarmentzen diren, eta txaranbel-sentsazioa areagotzen duten harlandu batzuen gainean dago jarrita, eta, beraz, pentsa liteke teilatu-hegal bat izan zuela irten-da, babesteko.

Irtenda dagoen hormari atxikita, bi zutabe daude ertzean muga markatzen, eta, horrez gainera, alde bakoitzean beste bost daude, arkiboltei eusten. Zutabe finak dira, atxapar itxurako harroinen gainean jarrita, zokalo txiki baten gainean, eta erliebe lauko landare-motiboz apainduta eta gutxi garaturik dauden kapitelen buruturik dago. López de Ocárizek dioenez, ematen du zutabeek eta kapitelen atrofia-prozesu bat jasan dutela, J. Gudiolen adierazpidea hartuz, eta ez direla ausartu gotikoko forma berri lirainagoz lotzen. Eskuinaldeko fusteen artean, hanka itxurako muturrak dituen gurutze bat dago.

Erronbo-formako tako-apaindurak dituen inpostalero sinple batek burutzen du, eta zangoak eta portada eratzen duten bost arkiboltak banatzeko balio du. Arku zorrotzeko portadak Donejakue Bidean hain motibo ugaria den xake itxurako deskarga-arku bat du. Lehenengo, hirugarren eta bosgarren arkiboltak baketoidunak dira; bigarrena akanto-hostoz dago apainduta, eta laugarrenak irudi-galeria aberatsa du.

Irudi horiek arkuaren noranzko berean daude jarrita. Begiratzen duenaren ikuspegitik ezkerretik eskuinera joanda –eta bi aldeetako arkuaren abiapuntuan ezabatuta dauden alde batera utzita–, lehenengo irudia lepoz ageri da, burua falta zaio, besoak altxatuta ditu, eta izterrak, zabalik, batrazio bat balitz bezala. Horren gainean, gizonetzko baten aurpegia dago, hazpegi eskematikoduna, aurrez jarrita eta lepo zabalekoa; bizarra duela ematen du, eta ezpainak oso lodiak ditu, sudur zabala eta zapala, eta begi handiak eta irtenak. Ille laburra eta kizkurra du, eta bekoki gainera eta belarrien gainera jausita. Oso originala

unas primeras hiladas de mejor calidad, a modo de zócalo–, con sillares en las esquinas y contrafuertes. Presenta planta de cruz latina de dos tramos, con los brazos muy cortos, que más bien parecen el intradós de profundos arcos formeros de medio punto, decorados con motivos geométricos. La cabecera es poligonal, con tres caras, y se cubre con bóveda de arista. El crucero lo hace con bóveda estrellada. Los tramos últimos de la nave conservan los arcos fajones apuntados y la bóveda de cañón, estructura medieval del románico tardío que fue maestreada en época neoclásica, a finales del siglo XVIII. En el muro sur, como es habitual, se encuentra el pórtico. Se abre mediante tres arcos rebajados que descansan sobre columnas toscanas, y sirve de acceso y protección a la portada románica del siglo XIII. Esta portada es un buen ejemplar del románico de inercia. Está apoyada sobre unos sillares ligeramente destacados del muro, que refuerzan la sensación de abocinamiento, y hacen pensar que tuviera, posiblemente, un tejeroz en saliente protegiéndola.

Dos columnas se adosan al muro saliente, marcando su límite en esquina y cinco más, a cada lado, sirven de sostén a las arquivoltas. Son columnas finas que se apoyan en basas de garras, sobre un pequeño zócalo, y están rematadas por capiteles poco desarrollados, con motivos vegetales de relieve plano. Como expresa López de Ocáriz, parece que columnas y capiteles han sufrido un proceso de atrofia, haciéndose eco de la expresión de J. Gudiol, sin atreverse a enlazar con las nuevas formas, más esbeltas, del gótico. Entre los fustes del lado derecho, hay incisa una cruz con los extremos patados.

Una sencilla línea de imposta, con decoración de taqueado en forma de rombo, sirve de remate y separación entre las jambas y las cinco arquivoltas que conforman la portada. La portada de arco apuntado muestra un sobreaarco ajedrezado, motivo muy común en el camino jacobeo. Las arquivoltas primera, tercera y quinta son baquetonadas; la segunda está decorada con hojas de acanto; la cuarta posee una rica galería de imágenes.

Tales imágenes están dispuestas en el mismo sentido del arco. Comenzando de izquierda a derecha, según mira el espectador –y pasando por alto las que están borradas en el arranque del arco de ambos lados–, vemos, en primer lugar, una figura de espaldas, a la que le falta la cabeza, con los brazos levantados y las piernas abiertas, como si fuese un batracio. Sobre ella, un rostro masculino de rasgos esquemáticos pero marcados, en posición frontal y con el cuello muy ancho; parece que lleva barba y tiene los labios muy gruesos, la nariz aplastada y ancha, los ojos grandes y saltones. El cabello corto y rizado le cae en la frente y sobre las orejas. Es muy original, pues recuerda los rasgos negroides, detalle que recoge Micaela Portilla.

da, eta beltzen aurpegiera gogorarazten du, Micaela Portillak biltzen duenez.

Ondoren beste aurpegi bat dago, hori ere aurrez jarrita, eta ondo kaligrafiatutako lerroz egindako bizar eta bibotearekin. Begiak zabal-zabalik ditu, eta bekainak, kakotuta, ile lisoa eta marratuta, eta, burua estaltzen, hostoak ditu, koroa moduan jarrita. Laugarrena bi irudik eratzen dute: izterrak gurutzatuta dituzte, eta eskuak elkarri emanda daude, bilauen arteko borroka antzetzuz. Horien gainean, koroa jantzita dagoen errege bat dago, tronuan

A continuación hay otro rostro, también en posición frontal, con barba y bigote de líneas muy caligráficas. Tiene los ojos muy abiertos y las cejas muy arqueadas, el cabello liso está rayado y unas hojas a modo de corona le cubren la cabeza. La cuarta imagen está compuesta por dos figuras, con las piernas entrecruzadas, que se cogen de las manos, posiblemente una representación de la lucha de villanos. Sobre ellos, un rey con corona, sentado en un trono, se recoge el manto con las manos. Encima, un personaje sedente con un libro abierto en sus manos,

Portada / Portada





Arkibolta. Buru antropomorfoak / Arquivolta. Cabezas antropomorfas

eserita, mantua eskuekin batuta duela. Gainean, beste pertsonaia bat, eserita, eskuetan liburu bat irekita duela, atzerantz bota duen mantu batekin jantzita. Arkiboltaren erdia osatzen, aurreko horren antzeko jarreran dagoen beste irudi bat dago, baina horrek mantua ezkerreko besoaren gainean du, eta eskuetan objektu bat darama.

Erpinera heltzean, irudiak beste noranzkoan jarrita daude. Goitik beherantz, lehenengo irudia buru handi bat da, hazpegi eskematiko eta baraila zabal eta sendokoa. Adats laburra du, eta karratua, belarrien atzetik; dena dela, kasko liso bat ere izan liteke. Ondoren bi dama eskaintzaile ageri dira, hazpegi finekoak; ile lisoa dute, adatsa sorbaldaraino, marra erdian dutela orraztuta, eta belo laburrez estalita. Lurrin-ontziak dituzte eskuetan, bilduta dituzten mantuekin estalita; horretara, tuniken tolesturak ikusten dira beheko aldean. Dama horien oinetan, artzain bat dago, txanoa jarrita, eskuineko eskuan makila bat hartuta, eta ezkerrekoarekin ematen du joko duen adarra daramala. Artzainaren oinetan bi ardi daude, aurrez aurre jarrita, bazkatzen edo.



Arkibolta. Borrokaren eszena eta errege eserita
Arquivolta. Escena de lucha y rey sedente

ataviado con un manto echado hacia atrás y sujeto con fiador. Completando la mitad de la arquivolta, otra figura, en aptitud similar a la anterior, con el manto caído sobre el brazo izquierdo, lleva un objeto en las manos.

Llegados al vértice, las figuras cambian de sentido. De arriba hacia abajo, la primera es una cabeza grande, de rasgos esquemáticos, pero con una mandíbula ancha y rotunda. Tiene el cabello con melena corta, cuadrada, por detrás de las orejas, aunque también podría ser un casco liso. Siguen dos damas oferentes, de rasgos delicados, con los cabellos lisos, de media melena, peinados con raya en medio y cubiertos con velos cortos. Llevan pomos en las manos, que cubren con los mantos recogidos, lo que permite ver los pliegues de las túnicas en la parte inferior. A los pies de las damas se representa un pastor con capucha, con un cayado en la mano derecha, mientras que con la izquierda parece llevarse a la boca un cuerno para tañer. A sus pies, dos ovejas enfrentadas parecen pastar. Siguiendo el descenso de la arquivolta encontramos uno de los escasos personajes ecles-



Arkibolta. Irakurlea / Arquivolta. Lector

Arkiboltari beherantz jarraituta, elizako pertsonaia bat dago adierazita, ageri diren gutxienetako bat. Gotzaina da, eta bedeinkapen-keinua egiten ari da, pontifize-janzkerarekin, mitra baxu eta makuluarekin. Ondoren, zaldi bat dago, oso errealista, zurdak adats ebakiz adierazita, eta zela eta guzti. Errepertorio garrantzitsu hori burutzen, gizonetzko baten irudia azaltzen da, uzkurtuta; buru gainean pisua daramala dirudi, eta eusteko eskuak erabiltzen ditu, atlantea balitz bezala.

Tenpluaren iparreko horman, garai batean erantsi ziren baina geroago kendu izan diren hainbat elementuren arrastoak ageri dira. Estalkiaren zati labur baten azpian, XIII. mendeko harburu bat geratu da. Zutabe-fusteen eta arkibolten zati batzuk ere ikus daitezke, horman sartuta, burualdearen goiko partean. Dorrearen barrualdean, horman, fuste ildaskatu baten zati bat ere badago. Eskaileraren ardatzaren oinarrian, lehenengo hiru mailak daude zizelkatuta.

Testua eta argazkiak: RHA



Arkibolta. Dama eskaintzaileak eta artzaintzako eszena
Arquivolta. Damas oferentes y escena pastoril

siáticos que se hallan representados. Se trata de un obispo en actitud de bendecir, revestido de pontifical, con mitra baja y báculo. A continuación, un caballo muy realista, con las crines en guedeja incisa y silla de montar. Termina tan interesante repertorio con la figura de un hombre acurrucado, que parece sostener un peso sobre la cabeza, y se ayuda con las manos, como si de un atlante se tratase.

En el muro norte del templo se pueden apreciar las huellas de elementos que, en otro tiempo, fueron añadidos y que, con posterioridad, han sido retirados. Se conserva un canecillo bajo un tramo corto de la cubierta, correspondiente al siglo XIII. Otros fragmentos de fuste de columna y arquivolta se hallan incrustados en el muro, en la parte alta de la cabecera. En el interior de la torre, en la pared, también se encuentra el resto de un fragmento de fuste estriado. En la base del eje de la escalera, los tres primeros peldaños están tallados.

Texto y fotos: RHA



Arkibolta. Gotzaina / Arquivolta. Obispo



Arkibolta. Zaldia eta atlantea / Arquivolta. Caballo y atlante

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 132; CASTRO, C. de, 1915, p. 214, fig. 92; LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, p. 252; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997c, I, p. 202; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, p. 62; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 53; MARTÍNEZ-TORRES, L. M., 2004, p. 75, fig. 28; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 592-593, fig. 863-867; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 52, 60.